

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroan 2019ko arrantza baldintzak arautzen dituen foru legea onartu da

Amuarrainen arrantzarako baimenak gutxitu dira 2017ko arrainkume eskasiagatik

Osteguna, 2019.eko martxoak 7

Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako kontesilariak, Nafarroan 2019ko arrantza baldintzak jasotzen dituen foru legea onartu du. Arauak gaur, martxoak 7, osteguna, argitaratu dira [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#).

Arautegi honek bi helburu ditu: arrain-baliabideen aprobetxamendu antolatua arautzea eta, gainera, espezie exotiko inbaditzaileen populazioak eraginkortasunez kontrolatzeko neurriak hartzea, espezie horiek harrapatuz eta, behar denean, harrapatutako arrainak desagerraraziz.

Amuarraina

2019rako baimenak gutxitu egingo dira aurreko urtearekin alderatuz, 12.947 izanen dira 2018ko 17.271 baimenekin alderatuz, hala ere ibarrak eta arrantza modalitateak pasaden urtean bezela mantenduko dira. Baimenen jaitsiera Bidasoa eta Ega-Urederra eremuari eragingo dio, ez baita kompensatua izango Arakil-Larraun, Arga-Ultzama eta Irati-Erro eremuetan izan den igoera arinarekin.

Baimenen jaitsieraren zio nagusia 2017an Basozaingoak egindako arrainkumeen laginketen emaitza txarrak dira. 2018an egindako laginketek ere ez dituzte esperotako emaitzak eman, eta hala datozen arrantza kanpainetan ere amuarrain kopuruak gora-beherak izango ditu.

Arrantzale bakoitzeko baimenak iazko berdina izanen dira. Hala, 2019an pertsona bakoitzak 12 baimen eskatu ahal izango ditu amuarrain arrantzarako, eta bos gehienez arrantza modu bakoitzeko. Arrantzatze kopurua eguneko pertsonako bi amuarrainekoa izango da, eta gutxieneko neurria 23 zentimetro.

Gainera, denboraldia luzatzeko aukera mantenduko da, hartu eta askatu modalitatearako, emariak eta tenperaturak hala uzten badu 15 egunez luzatuko da, 2018an egin zen moduan. Garai horretarako arrantzale bakoitzak gehienez 3 baimen izango ditu (kontuan izan gabe denboraldi horretako baimenak agortu dituen ala ez). Neurri honek kirol ekintza hau ekintza turistiko eta oporrekin uztartzea ahalbidetuko du.

Izokina

Izokinen arrantzarako baimenen sistema mantenduko da, denboraldi bakoitzeko gehienez 60 arrantzatu daitezke.

Denboraldia apirilaren 14an hasiko da eta arrantza-debekualdia maiatzaren 27tik ekainaren 13ra zehaztuko da (bi egunak barne), hala denboraldi honek izokinaren arrantzarako egun baliodun berdinak izango ditu. Bestalde, las Nazasen, ur emaria egokia ez denean, arrantza debekua kendu da.

Berrikuntza nagusien artean arrantzatutako izokinak Departamentuaren eskuetan uzteko aukera jaso da, arrain-haztegiara eraman daitezen ondoren jarraipena egiteko 'Izan zaitez Bidasoako izokinaren babesle' kanpainaren baitan.

Ziprinidoen eremua

Ziprinidoen eremuko arrantzari dagokionean karpak arrantzatzen dituzten arrantzaleek aukera izango dute horiek hiltzeko ala ez, erabakia arrantzale bakoitzak hartu ahal izango du. Iaz hiltzea derrigorrezkoa zen, gainontzeko espezie inbaditzaileekin egiten den moduan.

Bestalde, pertsona bakoitzak izan ditzakeen kainabera kopurua murriztu da, iaz 3 izan zitezkeen eta aurtun 2. Gainera, ziprinidoen eremurako baimen sistemaren gainean lanean ari da Departamentua eta abendurako prest izatea espero dute.